

Justizia trantsizionala Latinoamerikan: bake-prozesu baterako ikasgaiak

Maitane Arnoso Martínez*, Carlos Beristain**, Darío Páez* eta
Manuel Cárdenas***

*Euskal Herriko Unibertsitatea; **Deustuko Unibertsitatea;
***Valparaisoko Unibertsitatea

Bake-prozesuak garatzeko justizia trantsizionalak proposatzen dituen hainbat neurri erabil ditzakegu. Ikerketa honek Latinoamerikan azken hamarkada hauetan gertatutakoaz hausnartzea du helburu, haien esperientziatik ikasgaiak ateratzeko asmotan. 4.899 inkestaren bitartez, 5 herrialdetako biztanleen iritziak jaso dira. Emaitzak aztertuta, honako neurri hauek adiskidetzeko bidean paper garrantzitsua jokatzen dutela ondoriozta dezakegu: iragana eta indarkeriaren garaia jorratzea funtsezkoa da eta, nahiz eta emozio negatiboak azaleratu, indarkeriaren biktimengan batik bat, hedatutako neurrien eraginkortasunean eragin handia du. Gainera, neurriok eraginkorrak direla sumatzen denean, giro soziala hobetzen dute, elkartasuna eta erakundeenganako konfiantza berrituz.

GAKO-HITZAK: Justizia trantsizionala · Latinoamerika · Bake-prozesua · Egiaren Batzordeak · Barkamen-eskaerak.

Transitional justice in Latin America: peace process opinion surveys

Different transitional justice measures have been used to deepen the processes of peace. This study explores the measures used in Latin American context, so to draw some conclusions and lessons. Original survey data from five countries was used (N = 4899). The results reveal the importance of these measures in reconciliation process: is important to discuss and share the experiences of the violence past, although this can bring out negative emotions. Another relevant variable was the perceived effectiveness of the measures implemented. When measures are considered effective help to improve social climate and increase social solidarity and institutional trust.

KEY WORDS: Transitional Justice · Latin America, Peace Processes · Truth Commissions · Apologies.

Jasotze-data: 2014-04-02. Onartze-data: 2014-05-21.

1. Sarrera

Gerrate, biolentzia edo giza eskubideen bortxaketak izan diren garai batetik aro demokratiko batera pasatzeko, tresna anitz proposatzen ditu justizia trantsizionala delako eredu teorikoak. Haren jatorria Bigarren Mundu Gerraren ostean aurki dezakegu: Nurenbergeko Nazioarteko Tribunal Militarra sortu eta Hitleren laguntzaile asko zigortuak izan ziren. Gertakizun horiek giza eskubideen defentsaren gorakada eragin zuten: «La tipificación de los crímenes y abusos realizada por los tribunales representaron un avance jurídico que sería aprovechado posteriormente por las Naciones Unidas para el desarrollo de una jurisprudencia específica internacional en materia de crímenes de guerra y crímenes en contra de la humanidad, así como para la constitución del Tribunal Penal Internacional permanente» (Elster, 2006; De Greiff, 2006). Hala ere, eredu teoriko horren garapen nagusia 1980ko hamarkadatik aurrera gertatu zen. Latinoamerikan Argentinako diktadura bukatu bezain laster «Juicio a las Juntas» izenez ezagutu ziren epaiketak ditugu adibide behinena. «Las medidas implementadas en Sudáfrica luego del Apartheid también constituyen ejemplos de medidas de procesos transicionales, a pesar de que 40 años después muchas de las reivindicaciones de justicia y reparación sigan sin haberse hecho efectivas». Justizia trantsizionalaren helburua zera da, gizarteak jasandako iragan krudelari aurre egitea eta normalizazio politikoa berreskuratzea. Horretarako proposatu diren tresnak lau arlotan antola ditzakegu. Batetik, egiaren zuzenbidean oinarriturik daudenak, Egiaren Batzordeak, besteak beste. Horiek garai jakin batean zer gertatu den salatzeke ahalmena dute eta biktimek jasan dituzten kalteak egiaztatzen laguntzen dute. Bestetik, zuzenbide penalean jasotakoak ditugu, purga edo garbiketa politikoak eta espetxe-zigorrek bultzatzen dituztenak, hain zuzen ere. Horiek ez ezik, barkamen-eskaerak ere posible izaten dira askotan, zeinek bortxaketen arduradunek erruak aitortu eta biktimek duintasuna berreskura dezaten laguntzen baitute. Azkenik, kalte-ordainak edo erreparazio-programak ere kontuan hartzen ditu justizia mota horrek (Aguilar, 2008; Hayner, 2001; Van der Merwe, Baxter eta Chapman, 2009). Tresna hauek guztiak batera erabiltzen direnean, posible izaten da bortxaketarik gabeko etorkizun bati hasiera ematea eta adiskidetzeko garai bat sorraraztea (Gibson, 2004).

Hala ere, normalean ez dira tresna hauek guztiak elkarrekin erabiltzen. Zer motatako bideak hautatzen diren, zenbait aldagairekin harreman zuzena izango du: bortxaketak edo biolentzia noiz gertatu den, ordutik pasatako denbora, zenbat eta zein talde izan ziren biolentziaren errudun, erakundeek eragindako presioa edo justiziak zigorgabetasunaren aurka duen konpromisoa, besteak beste.

Adibidez, nahiz eta leku askotan Egiaren Batzordeak sortu eta bortxaketen arduradunak ezagutarazi, haiek ez dute zigorrak jartzeko ahalmenik izan. Herrialde batzuetan soilik izan dira horrelako epaiketak, Argentinan eta Txilen batik bat. Ordea, kalte-ordainak izan dira errazen ezarri diren erreparazio-bideak, konpromiso gutxiago eskatzen baitute. Hala izan zen Espainiaren kasuan, non, Gerra Zibilaren ondorioz, kalte-ordainak eta 1977ko Amnistiaren Legea adiskidetzeko bide bezala aurkeztu ziren (Aguilar, 2008).

Zigorrik eta egitarako biderik gabe, ostera, bakerako aukerak murriztu egiten dira. Biktimek gertatutakoa gizarte osoak jakin dezan nahi izaten dute normalean;

baita bortxaketen arduradunak kartzelan ikusi ere. Horrek legeekiko konfiantza berreskuratzen lagundu (Bar-Tal, 2011) eta berriro gertatuko ez delako bermea ematen du (Sikkink eta Booth Walling, 2007).

Barkamen-eskaerek ere, arduradunak damutu egiten direnean behintzat, garrantzia handia izaten dute (Baumeister eta Exline, 2000), nahiz eta bakea zuzenean ekarri ez. Barkamen-eskaerak eraginkorrak izan daitezten, zenbait baldintza bete behar dituzte (Páez, 2010): egiazaletasunez esanda daudela nabaritu behar du gizarteak, eta ez justifikazio gisa edo zigorra ez jasotzeko soilik (Staub, 2005). Gainera, barkamena eskatzen dutenek taldearen ordezkari izan behar dute; hau da, gehiengoaren sostengua izan (Kadima, Kadiangandu, Gauché, Vinsonneau eta Mullet, 2007). Azkenik, barkamen-eskaerek ofizialak izan beharko lukete eta garrantzizko leku edo momentu batean emanak, bai biktimek bai gizarteak jaso ditzaten (Mullet, Pinto, Nann, Kadiangandu eta Neto, 2011).

Bestalde, adiskidetzeko bideak atzera begiratu eta gertatutakotik zerbait ikastearekin ados egotea eskatzen du. Gizarteak gertatutakoaz oroitzapen kolektiboa landu eta adostu beharko du.

Latinoamerikan, diktadura militarrei aurre egiteko, hainbat tresna erabili dira azken urteotan. Argentinan edonon baino epaiketa gehiago izan dira eta arduradun asko kartzelaratu dituzte azkeneko aldian. Txilek ere horrelako bideari ekin dio, baina, oraingoz, beste herrialdeetan ez da hainbeste epaiketarik egon. Egiaren Batzordeak, berriz, hainbat lekutan eratu dira. Argentinan, adibidez, diktadura (1976-1983) bukatu bezain laster eta Alfonsin lehendakari zegoela, CONADEP (Comisión Nacional sobre la Desaparición de Personas) izenez ezagutarazi zen batzordea eratu zen eta *Nunca Más* (1984) txostena argitaratu zuen. Batzordeak egindako lanak ahalbidetu zuen jende askok jakitea zer gertatu zen, eta, jasotako informazioarekin, epaiketak ugaritu egin dira azkeneko urteotan. Nahiz eta hasierako txostenean 9.000 pertsona hil edo desagertu zirela esan, kopuru hori 30.000ra igo da urteetan zehar izan diren salaketen ondorioz. 2004.ean, Kirchner-ek barkamena eskatu zuen Estatuaren izenean, diktadura-garaian gertatutako errepresioarengatik. Txilen ere bi batzorde antolatu ziren, Pinochet-en diktaduran (1973-1990) gertatutako giza eskubideen urraketak azaltzeko: 1990.ean «Comisión Nacional de Verdad y Reconciliación (CNVR)» izenekoa eta 2003.ean «Comisión Nacional sobre Prisión Política y Tortura (CNPPT)» deitutakoa. Batak zein besteak txosten bana argitaratu zuten (1991. eta 2004. urteetan) eta guztira, hiru mila hildako baino gehiago zenbatu zituzten, gehienak militarrek erailak. Lehenengo txostenaren aurkezpenarekin batera, garai horretan lehendakari zen Patricio Aylwin-ek barkamena eskatu zuen Pinochet-en garaian gertatutakoarengatik eta, ondoren, erreparazio-programa zabala bultzatu zuten erakundeek (Lira, 2010).

Peruk, biolentziaren garaia (1980-2000) bukatu bezain laster, 2001. urtean Egiaren Batzordea bultzatu zuen, Valentin Paniagua herrialdeko lehendakari zela. Testigantza anitz jaso zituzten eta argitaratutako txostenak biktima kopuru handiena egiaztatzen du: 69.280 pertsona hilda edo desagertuta. Hildako gehienak Sendero Luminoso erakundeak eragin zituen, baina Estatuak akabatutakoak ere badaude. Hala eta guztiz ere, ez dira epaiketa asko burutu. Uruguain (1973-1985) antolatutako lehen Egiaren Batzordea gizarte zibilaren eskutik sortu zen (SERPAJ

erakundearen eskutik, hain zuzen ere), ez gobernuak bultzatua. 1989.eko urtean *Uruguay Nunca Más* deitu izan zen txostena argitaratu zen, baina hamarkada bat baino gehiago itxaron behar izan zuten Uruguako biztanleek gobernuak beste txosten ofizial bat bultzatu arte. 2000. urtean, Jorge Batlle-k «Comisión para la Paz (COMPAZ)» deitutako batzordea eratu zuen estatuko lehendakaritzatik. Txostenak argitzen duenez, 174 pertsona desagertu ziren garai hartan. Duela gutxi, Mugika lehendakariak barkamena eskatu zuen Estatuaren izenean, nahiz eta berak ere, diktadura-garaian, errepresioa jasan. Paraguain ere (1954-1989), gizarte zibila izan zen Egiaren Batzordea sustatu zuena («Comisión de Verdad y Justicia»- CVR). 2225/03 Legeak giza eskubideen aldeko erakundeen eskaerak jaso zituen, eta 2008. urtean garai hartako giza eskubideen bortxaketak plazaratu ziren txosten sakon baten bitartez. Izan ere, 4.000 pertsona inguru erailak izan ziren aldi horretan, milaka torturatuak eta jende ugari deserriratu zen. Ikerketa hori egiteko, testigantza anitz jaso ziren, asko entzunaldi publikoetan emanak. 2009. urtean, Fernando Lugo-k barkamena eskatu eta botere judizialari eta botere legegileari ere barkamena eskatzeko agindu zien, eurak ere bortxaketen errudun izan baitziren. Ondoren, ordainketak ere ezarri zituen garai hartako biktimentzat.

Tresna hauen aurrean gizarteak dituen jarrerak ez dira beti berdinak, ordea. Egia ezagutaraztea ala iragana ahaztearen auziak (zer gertatu zen, zergatik, zeintzuk izan ziren errudunak edo/eta zer ondorio izan zituen, besteak beste) eztabaida handiak sorrarazten ditu gizarte-mailan. Giza eskubideen bortxaketekin lotura dutenek, normalean, iraganean gertatutakoa ahaztu egin nahi dute eta ez daude egiaren legeekin oso ados. Adibidez, Ruandan, non genozidioan askok hartu zuten parte eta milaka pertsona dauden epaiketa baten zain (Gacaca epaiketak), % 63k gertatutakoa ahaztu behar zela zeritzon, ahazte hori aurrera jarraitzeko tresna gisa ikusten baitzuten (Gabisirege eta Babalola, 2001). Hala gertatu zen Espainiako kasuan ere: nahiz eta Gerra Zibiletik lau hamarkada pasatu, askok (% 28,3k) egia zabaltzeak gatazka soziala sakondu egingo zuela esaten zuten, bereziki ideologikoki errudunekin bat egiten zutenek (Pérez Sales, 2011)

Guatemalan, berriz, % 74k gerratean gertatutakoa ezagutzera eman nahi zuen (Navarro García *et al.*, 2009), baita Kolonbian ere: % 79k egia eskubide bat zela esaten zuen eta % 63k egia ezagutu nahi zuen (PCS, 2006).

Egia gordetzeko edo egia kaleratzeko argudioak asko dira. Kolonbian, adibidez, egia salatu nahi ez zutenek erakundeekiko eszeptizismo handia erakusten zuten; biktimek min handia jasango zutela eta egiak mendeku ikaragarriak ekarriko zituela zeritzoten (PCS, 2006). Bosnian, % 26 Egiaren Batzordearen aurkikuntzak bi hamarkadaz behintzat ezkutuan gorde beharko zirelakoan zegoen, gatazka berpiztu ez zedin (Biro *et al.*, 2004). Egiaren aldeko argudioak, berriz, etorkizuna babesteko modu bezala aurkezten dituzte askok. Guatemalan adibidez, gertatutakoa argitaratzearen aldeko arrazoiak hauek ziren: gertatutakoa jakinda, halakorik etorkizunean berriro ez gertatzeko, justizia bultzatzeko eta desagertuen familiek beren senideei buruzko informazioa jasotzeko tresna izan zitekeen (Navarro García *et al.*, 2009).

Egia esan, gai hauek ez dira sarritan jorratzen. Testigantza emateak kostu emozional handia du biktimentzat, batzuetan emozio txarrak azaleratzen ditu eta

noiz edo noiz, sintomatologia traumatikoa berragerrarazten du (Brounéus, 2008; Kaminer, Stein, Mbanga eta Zungú Dirwayi, 2001; Hamber, 2007; Rimé, Kanyangara, Yzrtbyt eta Páez, 2011), batez ere testigantza eman ondoren babesneurririk edo justiziarik ez denean. Hala ere, alderdi positiboak ere aurkitu dituzte ikerketa askok. Testigantza ematea eta esperientzia publikoki azaltzea katartiko edo askagarria izan daiteke eta biktinek emozionalki lasaitu eta beren buruaz harro sentitzeko aukera izaten dute (Kanyangara, Rimé, Philippot eta Yzerbit, 2007; Kanyangara, 2008). Bestalde, Egiaren Batzordeak antolatu diren herrialdeetan eta haien lana gizarteak egindako lanarekin adostu dutenean, egoera politikoa hobetu egin dela aurkitu dute ikerketek (Sikkink eta Booth-Walling, 2007): giza eskubideak tinkoago defendatzen ditu biztanleriak (Pérez-Sales, Vázquez eta Arnoso, 2009; Beristain, Páez, Rimé eta Kayangara, 2010) eta erakundeekiko konfiantza areagotu egiten da (Bar-Tal, 2011; Cárdenas, Páez, Bilbao, Arnoso, Asún eta Fernández, 2012).

Helburuak

Ikerketa honetan Argentinako, Txileko, Peruko, Uruguaiako eta Paraguaiako gizarteak gai honen inguruan dituen iritzia aztertzea dugu helburu nagusi. Bortxaketak eman ziren garaia aztertzeko, zer-nolako jarrera du jendeak? Zenbat informazio jaso du jendeak eraturako batzordeei buruz? Eraginkorrak izan dira? Zer-nolako eragin emozionala sortu eta zenbat lagundu dute erakundeekiko konfiantza hobetzen? Barkamen-eskaerak egiazaletasunez eginak eta eraginkorrak izan direla uste al dute biztanleek? Galdera horiei erantzutea dagokio ikerketari.

2. Metodologia

2.1. Tresna eta aldagaiak

Hemen azaltzen dugun galde-sorta itxiari erantzun zioten ikerketako parte-hartzaileek:

- Iraganaren aurreko jarrera ezagutzeko galdera bat egin zen («Iraganean gertatutakotik ikasi beharko dugu, akats berdinak berriro gerta ez daitezen») baiezkoa edo ezezkoa (BAI/EZ) erantzun zezaten. Egiaren Batzordeen inguruko informazioa eta eraginkortasuna: alde batetik euren herrialdeetan eraikitako batzordea ezagutzen al zuten (BAI/EZ erantzuteko aukerak ziren) galdetu zitzaizkien; bestalde, eraginkortasuna neurtzeko, 4 baieztapen egin ziren batzordeen helburuei begira, non 1= guztiz gezurrezkoa eta 4= guztiz egiazkoa zen («Batzordeak erailen familiei gertatutakoa jakinaraztea lortu zuen»; «Batzordeak komuneko historia ofiziala eraikitzea lortu zuen»; «Batzordeak errudunak justiziaz ordain dezaten lortu du» eta «Batzordeak giza eskubideen bortxaketak etorkizunean posible ez izatea lortu du»).
- Biolentzia-garaiari eta batzordeei buruz hitz egindakoa: 3 galdera egin ziren gai hauei buruz zenbat hitz egin den aztertzeko («Egiaren Batzordeari buruz hitz egin duzu txostena kaleratu ondoren?»; «Egiaren Batzordeari buruz hitz egin duzu azken hilabetean?»; «Biolentziaren garaiari buruz hitz egin duzu Egiaren Batzordearen txostenak zer dioten jakin ondoren?») eta beste galdera bat hitz egiteko premia/beharra ezagutarazteko («Garai hartaz hitz

egiteko zenbateko premia izan duzu?». Lau galdera horiekin hizketa-maila neurtu zen ($\alpha = .87$).

- Batzordeen inpaktu emozionala: 8 emozio proposatu ziren (Etxeberria eta Páez, 1989), non parte-hartzaileek emozio horiek zenbatetan sentitzen zituzten kalifikatu behar zuten, eta non 1= guztiz gezurrezkoa eta 7= guztiz egiazkoa zen. Proposatutako emozio positiboak ($\alpha = .73$) poza, harrotasuna eta itxaropena izan ziren. Emozio negatiboen artean ($\alpha = .81$) tristura, beldurra, lotsa, haserrea eta errua proposatu genituen.
- Barkamen-eskaeren inguruko egiazaletasuna eta eraginkortasuna: egiazaletasuna neurtzeko galdera bat egin zen («Egindako barkamen-eskaerak egiazkoak izan zirela uste duzu?»). Eraginkortasuna neurtzeko bi galdera egin genituen («Barkamen-eskaerak biktimak jasandako sufrimendua gizarteak ezagutzeko balio izan zuten?» eta «Barkamen-eskaerak taldeen arteko konfiantza berreskuratzeko balio izan zutela uste duzu?») ($\alpha = .83$), non 1= guztiz gezurrezkoa eta 4= guztiz egiazkoa zen.
- Giro emozionala neurtzeko (Páez, Basabe eta González, 1997) bi galdera gehitu ziren («Zer-nolako elkartasun-giroa sentitzen duzu biztanleriaren artean?» eta «Zer-nolako konfiantza du jendeak erakundeengan?») ($\alpha = .52$), non 1= guztiz ezezkoa eta 5= guztiz baiezkkoa zen.
- Ideologia ezagutzeko, parte-hartzaileek 7 puntuko eskala batean erantzun behar izan zuten, non 1= guztiz ezkerreko posizio politikoak eta 7 = guztiz eskuineko posizio politikoak zituen. Emaitzak 3 mailatan kodetu ziren: ezkerreko posizioak (1-3), erdialdeko posizio politikoak (4) eta eskuineko posizioak (5-7).
- Jasandako errepresio-maila ezagutzeko, 3 egoera mota aurkeztu ziren: biktima zuzenak (1) (pertsonek berak sufritu zuen indarkeria); zeharkako biktimak (2) (nahiz eta beraiek indarkeria sufritu ez, lagunak edo senideak biktima zuzenak izan ziren); eta errepresioa jasan ez zutenak (3). Parte-hartzaileek egoera mota bat hautatu behar izan zuten.
- Bukatzeko, parte-hartzaileei adina eta sexua ere galdetu zitzaizkien.

2.2. Parte-hartzaileak

4.899 inkesta egin ziren: % 26,1 Txilen, % 24,5 Perun, % 24,3 Paraguan, % 14,5 Uruguain eta % 10,6 Argentinan. Sexua kontuan harturik, % 52,5 emakumezkoak izan ziren eta % 47,5 gizonezkoak. Jasandako errepresio-mailaren arabera, gehienak indarkeria jasan gabekoak izan ziren (% 59,4); % 24 zeharkako biktimak eta % 16,4 ($n=801$) biktima zuzenak. Ideologia kontuan hartuta, % 43k ezkerreko ideiak zituen, % 37,2k erdialdekoak eta % 19,8k eskuinekoak. Adinaren arabera, parte-hartzaileek 38,50 (S.D.= 15.51) urteko batez bestekoa zuten, gazteenek 18 urte eta 90 urte helduenek. Galde-sortak/Inkestak Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Metodologia Saileretik diseinatuak eta koordinatuak izan ziren eta herrialde bakoitzeko ikertzaile lokalengandik jasoak.

3. Emaitzak

3.1. Iraganaren aurreko jarrera eta Egiaren Batzordeen inguruko informazioa

Oro har, jendeak akats berdinak gerta ez daitezen iraganera begiratu behar dela uste du, bereziki beren burua biktimatzat duten parte-hartzaileek. Iragana ahaztu behar delako pentsamendua eskuineko posizio politikoak dituzten parte-hartzaileengan da nagusi, ezkerrekoekin konparatuta. Herrialdeei begira, Uruguain, biztanleen iritziak oso banatuta daude. Zentzu horretan, gogoratzekoa da 1986ko *Caducidad de la Pretensión Punitiva del Estado* izenez ezagutu zen legea, zein biztanleriak berretsi egin zuen erreferendum baten bitartez. Perun, berriz, gehienek iraganera begiratu behar dela uste dute. Egiaren Batzordeen aldeko informazioa ez da nagusi: nahiz eta % 58k ezagutu, % 41,9k ez du Egiaren Batzordeen aldeko informaziorik. Informazio gehiago du Argentinako eta Uruguaiako jendeak, non gehienek baduten arlo horretan egindakoaren berri, batez ere Peruko, Txileko edo Paraguaiako jendearekin alderatuta. Biktima zuzenek edo zeharkako biktimek indarkeria jasan gabekoek baino informazio gehiago dute. Ideologia kontuan hartuta, zenbat eta eskuinerago jo, orduan eta informazio gutxiago du jendeak.

3.2. Egiaren Batzordeen eraginkortasuna

Oro har, jendeak Egiaren Batzordeak eraginkorrak izan direla uste du, nahiz eta emandako puntuazioak oso altuak izan ez. Puntuazio altuenak Argentinan eta Paraguain lortu ziren; Peruko biztanleek, ordea, ez dute batzordeen lana eraginkortzat jo. Batez ere, batzordeek eraildakoen familiei gertatutakoa jakinaraztea eta errudunek justiziarekiko zorra ordain dezaten lortu dutela uste du jendeak. Komuneko historia ofiziala eraikitzeak edo giza eskubideen bortxaketak etorkizunean posible ez izatearen helburuak, berriz, ez dute hainbesteko babesik. Biktimek eta ezkertiarrek beste taldeek baino eraginkorragotzat baloratzen dituzte Egiaren Batzordeak. Gainera, iraganari begiratzearen aurreko jarrera positiboa, Egiaren Batzordeen eraginkortasunari loturik zegoela aurkitu zuen korrelazio-azterketak ($r = .28$).

3.3. Barkamen-eskaeren egiazaletasuna eta eraginkortasuna

Biztanleriak barkamen-eskaerak, oro har, egiazaletasunez esandakoak eta nahiko eraginkorrak izan zirela uste du. Egiazaletasun eta eraginkortasun altuenekoak Uruguain eta Paraguain lortu ziren, batez ere Txilen emandako barkamen-eskaerekin konparaturik. Indarkeria jasan gabekoek barkamen-eskaerak benetakoagoak izan zirela uste dute, biktimekin konparaturik; hala ere, biktimek, nahiz eta egiazaletasun hori hain argi ikusi ez, eraginkortzat jo zituzten, zeharkako biktimek batik bat. Ideologia kontuan harturik, ezkertiarrek egiazaletasun handiagoko eta eraginkortasun altuagokotzat baloratzen dituzte barkamen-eskaerak, batez ere eskuindarrekin konparaturik. Bestalde, iraganaren aurreko jarrera positiboa, barkamen-eskaeren eraginkortasunari loturik zegoela aurkitu zuen korrelazio-azterketak ($r = .33$), baita barkamenaren eta Egiaren Batzordeen arteko eraginkortasuna ere ($r = .52$).

3.4. Hizketa-maila

Jendeak ez du indarkeriaren garaiari buruz hitz egiteko premia handia sentitu eta ez du Egiaren Batzordeei buruz asko jardun. Argentinako, Paraguaiako eta

Txileko biztanleak dira hitz egiteko premia handiena dutenak, eta Paraguaiakoak guztien artean gehien jorratu dutenak, batez ere Uruguaiako eta Peruko biztanleekin konparaturik. Biktimek indarkeria jasan gabekoek baino hizketa-behar handiagoa izan dute, eta haiek baino gehiago jorratu dute indarkeriaren gaia. Ideologia kontuan harturik, ezkertiarrek, zentrokoek eta eskuindarrek baino gehiago sentitu dute hitz egiteko premia eta hizketa-maila altuagoa izan dute.

Bestalde, gai hauek gehiago jorratu dituztenek eraginkortasun altuagokotzat baloratzen dituzte bai Egiaren Batzordeak ($r = .41$) bai barkamen-eskaerak ($r = .37$).

3.5. Inpaktu emozionala

Egiaren Batzordeek egindako lanak ez du inpaktu emozional sakonegia izan. Hala ere, inpaktu positiboa negatiboa baino sakonagoa izan da. Emozio negatiboen artean, tristura ($M=4.02$; $SD= 2.04$) eta haserrea ($M=3.83$; $SD=2.04$) izan ziren puntuazio altuena lortu zutenak. Emozio positiboen artean, itxaropenak lortu zuen puntuazio altuena ($M=2.71$; $SD= 1.81$). Uruguain eta Paraguain inpaktu negatiboa beste herrialdeetan baino sakonagoa izan da, batez ere Argentina eta Txilerekin konparaturik, non inpaktu positibo altuena aurkitu zen. Biktima zuzenek inpaktu positibo eta negatibo altuagoa erakutsi zuten, zeharkako biktimekin eta indarkeria jasan gabekoekin konparaturik. Ezkertiarrek inpaktu emozional negatibo altuagoa adierazi zuten; eskuindarrek, ordea, inpaktu positibo sakonagoa azaldu zuten.

Inpaktu emozional negatiboa Egiaren Batzordeen ($r = .35$) eta barkamen-eskaeren ($r = .35$) eraginkortasunari loturik zegoela aurkitu zen korrelazio-azterketa baten bitartez. Iraganari buruz gehiago jardun zutenek ere, inpaktu negatibo sakonagoa adierazi zuten ($r = .44$).

3.6. Giro emozionala

Giro emozionala txarra zen, batez ere Perun, Txilen eta Paraguain aurkitutako giroarekin konparaturik, non elkartasuna eta erakundeenganako konfiantza altuagoa zen. Biktima zuzenek eta ezkertiarrek beste taldeek baino giro okerragoa nabarmentzen zutela adierazi zuten. Hala ere, Egiaren Batzordeak ($r=.33$) eta barkamen-eskaerak ($r = .42$) eraginkortzat jo zituztenek giro hobea nabaritzen zutela adierazi zuten. Gainera, iragana eta batzordeek egindako lana gehiago jorratu dutenek giro positiboagoa adierazi zuten ($r = .27$).

1. taula. Herrialdearen arabera emaitzak.

| | ARGEN- TINA | PERU | TXILE | URUGUAI | PARAGUAI | ESTADISTIKOA |
|--|----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|--------------------------------------|
| Iraganean gertatutakotik ikasi behar da | % 92.1 | % 91 | % 48.9 | % 41.8 | % 92.3 | $\chi^2_{(4)} = 928.428$; p. = .000 |
| Egiaren Batzordeak ezagutzen ditu | % 90.1 | % 48.1 | % 48.9 | % 91 | % 45.4 | $\chi^2_{(4)} = 689.644$; p. = .000 |
| | M (SD) | M (SD) | M (SD) | M (SD) | M (SD) | |
| Egiaren batzordeen eraginkortasuna | 3.05 (.65) | 1.98 (.68) | 2.31 (.62) | 2.37 (.70) | 2.73 (.86) | F (4,4072) = 244.988; sig. = .000 |
| Hizketa-maila | 1.95 (.69) | 1.46 (.52) | 1.90 (.64) | 1.51 (.39) | 2.18 (1.03) | F (4,4709) = 181.541; sig. = .000 |
| Emozio positiboak | 2.64 (1.77) | 2.09 (.94) | 2.32 (1.46) | 1.77 (.96) | 2.17 (1.55) | F (4,44176) = 30.549; sig. = .000 |
| Emozio negatiboak | 2.70 (1.34) | 2.48 (.95) | 3.01 (1.33) | 3.70 (.86) | 3.53 (1.45) | F (4,3613) = 144.061; sig. = .000 |
| Barkameneen eskaeren eraginkortasuna | 2.33 (1.65) | | 2.58 (1.65) | 2.48 (1.59) | 2.17 (1.50) | F (3,3606) = 52.018; sig. = .000 |
| Barkameneen eskaeren egiazaletasuna | 2.46 (1.05) | | 2.09 (.73) | 3.14 (.80) | 2.60 (.96) | F (3,3613) = 220.697; sig. = .000 |
| Giro emozionala (elkartasuna eta konfiantza) | 2.58 (.87) | 2.08 (.75) | 2.82 (.90) | 2.39 (.82) | 2.54 (.67) | F (4,4828) = 136.377; sig. = .000 |

2. taula. Ideologiaren araberako emaitzak.

| | EZKERTIARRAK | | ZENTROKOAK | | ESKUIDARRAK | | ESTATISTIKOA | |
|--|---------------|--|---------------|--|---------------|--|--|--|
| Iraganean gertatutakotik ikasi behar da | % 76.3 | | % 66.8 | | % 56.3 | | $\chi^2_{(2)} = 109.445$; p = .000 | |
| Egiaren Batzordeak ezagutzen ditu | % 73.1 | | % 49.8 | | % 41.9 | | $\chi^2_{(2)} = 303.022$; p = .000 | |
| | M (SD) | | M (SD) | | M (SD) | | | |
| Egiaren batzordeen eraginkortasuna | 2.56 (.81) | | 2.47 (.79) | | 2.28 (.75) | | $F_{(2,3740)} = 31.946$; sig. = .000 | |
| Hizketa-maila | 2.14 (.86) | | 1.72 (.70) | | 1.53 (.53) | | $F_{(2,4153)} = 236.528$; sig. = .000 | |
| Emozio positiboak | 2.02 (1.20) | | 2.32 (1.48) | | 2.44 (1.60) | | $F_{(2,3933)} = 30.788$; sig. = .000 | |
| Emozio negatiboak | 3.57 (1.23) | | 2.85 (1.33) | | 2.50 (1.21) | | $F_{(2,3897)} = 231.249$; sig. = .000 | |
| Barkameneen eskaeren eraginkortasuna | 2.28 (.74) | | 2.08 (.77) | | 1.92 (.70) | | $F_{(2,3255)} = 53.796$; sig. = .000 | |
| Barkameneen eskaeren egiazaletasuna | 2.72 (.94) | | 2.29 (.88) | | 2.17 (.91) | | $F_{(2,3263)} = 111.866$; sig. = .000 | |
| Giro emozionala (elkartasuna eta konfiantza) | 2.47 (.80) | | 2.53 (.83) | | 2.57 (.95) | | $F_{(2,4236)} = 4.583$; sig. = .010 | |

3. taula. Indarkeriaren eraginaren araberako emaitzak.

| | BIKTIMA ZUZENA | ZEHARKAKO BIKTIMA | INDARKERIA JASAN GABEKOAK | ESTATISTIKOA |
|--|-------------------|----------------------|---------------------------------|--|
| Iraganean gertatutakotik ikasi behar da | % 85.6 | % 87.1 | % 81.7 | $\chi^2_{(2)} = 19.783$; p. = .000 |
| Egiaren Batzordeak ezagutzen ditu | % 73.5 | % 63.1 | % 51.9 | $\chi^2_{(2)} = 134.678$; p. = .000 |
| | M (SD) | M (SD) | M (SD) | |
| Egiaren batzordeen eraginkortasuna | 2.55 (.79) | 2.58 (.79) | 2.34 (.79) | $F_{(2,4068)} = 40.864$; sig. = .000 |
| Hizketa-maila | 2.34 (.83) | 2.17 (.86) | 1.52 (.53) | $F_{(2,4704)} = 640.819$; sig. = .000 |
| Emozio positiboak | 2.32 (1.47) | 2.18 (1.44) | 2.14 (1.32) | $F_{(2,4413)} = 4.819$; sig. = .008 |
| Emozio negatiboak | 3.52 (1.35) | 3.31 (1.34) | 2.87 (1.25) | $F_{(2,4369)} = 92.271$; sig. = .000 |
| Barkameneen eskaeren eraginkortasuna | 2.16 (.77) | 2.26 (.83) | 2.07 (.67) | $F_{(2,3608)} = 23.039$; sig. = .000 |
| Barkameneen eskaeren egiazaletasuna | 2.44 (.96) | 2.51 (.92) | 2.54 (.96) | $F_{(2,3613)} = 3.132$; sig. = .044 |
| Giro emozionala (elkartasuna eta konfiantza) | 2.40 (.80) | 2.56 (.79) | 2.48 (.87) | $F_{(2,4623)} = 9.323$; sig. = .000 |

4. Ondorioak

Latinoamerikan giza eskubideen bortxaketei aurre egiteko abiatu diren neurriak adibide interesgarriak izan daitezke bake-prozesuetan ari diren herrialdeek kontuan har ditzaten. Batez ere, egiaren eskubidean oinarritutako neurriak abiatu dira eta, nahiz eta beti ekintza penalak edo barkamen-eskaerak batera izan ez, demokratizazio-prozesuetan paper garrantzitsua joka dezakete.

Hala ere, nahiz eta biztanleak iraganaren eztabaidan jardutearekin ados azaldu, ikerketa honen emaitzek adierazten dutenaren arabera, gutxi dira Egiaren Batzordeak ezagutzen dituztenak. Argentinako biztanleak dira Egiaren Batzordeen inguruan informazio zehatzena dutenak, eta hori eraginkortasun handiagoa sumatzearekin loturik egon daitekeela azaldu du ikerketa honek. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Argentina dela Latinoamerikatik neurri gehien abiatu dituen herrialdea: epaiketa anitz izan dira, errepresioaren errudun asko kartzelaratu dituzte, erreparazio-neurri ugari zabaldu eta memoria historikoan berariazko programak hedatu dituzte erakundeek. Beraz, bake-prozesu bati hasiera ematen dion edozein herrialderi han gertutakoari begiratzea komeniko litzaioke.

Peruko Egiaren Batzordea, ordea, eraginik gabekotzat jo zuten parte-hartzaileek. Egia esan, iritzi publikoa guztiz banaturik zegoen txostena kaleratu zen momentuan (GOP, 2003; Sulmont, 2007) eta, gainera, askok Egiaren Batzordeenganako itxaropenak ez zituzten betirik ikusi, ez baitziren erreparazio-neurri nahikorik abiatu ezta epaiketarik izan ere (Carbonell, 2003). Bestalde, azpimarratzekoa da Egiaren Batzordeek ez dutela komuneko historia eraikitzea lortu, ezta giza eskubideen bortxaketak berriro gertatuko ez direnik ziurtatzea ere. Ezkertiarrek eta biktimek beste taldeek baino jarrera positiboagoa dute iraganen gertatu-takotik ikasteko, hizketa-maila altuagoa izan dute, informazio gehiago jaso eta hobeto baloratzen dituzte hartutako neurriak. Bestalde, kolektibo horiek inpaktu emozional negatibo sakonagoa aipatu dute (Kanyangara, 2008; Kanyangara, Rimé, Philippot eta Yzerbit, 2007); indarkeria jasan gabekoek, ordea, ez zuten inpaktu emozional handirik adierazi.

Emaitza hauek beste ikerketa batzuetan aurkitutakorekin bat egiten dute, non biktimak diren, normalean, indarkeriaren gaia gehien jorratzen dutenak. Adibidez, Espainiako Estatuan zera aurkitu zuten ikertzaileek: Gerra Zibileko biktimek indarkeria jasan gabekoek baino hitz egiteko premia handiagoa zuten (Páez eta Basabe, 1999; Valencia eta Páez, 1999) eta talde horiek izan dira erreparazio-eskaerak bultzatu dituztenak, nahiz eta askorik lortu ez.

Herrialdeen arteko ezberdintasunak aztertuz, azpimarratzekoa da Paraguaiako biztanleriak iraganari buruz hitz egiteko adierazi zuen premia, batez ere Uruguaiako biztanleekin konparaturik. Orogen artean, uruguaiarrak dira ahazte politikoarekin ados azaldu eta ahazte-legeak baietsi dituztenak euren historian zehar. Barkamen-eskaeren egiazaletasun eta eraginkortasunari dagokionez, Uruguai da presidenteak eskatutako barkamenak benetakoagotzat jo diren herrialdea. Horren argibidea presidentearen ezaugarrietan dagoela pentsatzen dugu, politikarilanean oso balorazio positiboak baititu, bai Uruguain bai munduan zehar. Hala ere, barkamen-eskaerak giza eskubideen bortxaketetan parte hartu zuten

errudunengandik ez datozenean edo errudunak damutzen ez direnean, eragin-kortasuna posible ez dela adierazi dute ikertzaile askok (Kadima, Kadiangandu, Gauché, Vinsonneau eta Mullet, 2007). Kasu horretan, gogoratzekoa da Mugikak ez zuela bortxaketetan parte hartu, pairatu baizik.

Hala ere, nahiz eta eraginkortasuna urria izan, biktimak eta ezkertiarak dira oro har, horien premia handiena duten taldeak, eta bestelako neurrien eraginkortasunean ere paper garrantzitsua dutela aurkitu zuen ikerketak. Iragana jorratzeak eta hortik ikasteak emozio negatiboak azaleratu ditzake (Brounéus, 2008; Kaminer, Stein, Mbanga eta Zungú Dirwayi, 2001; Hamber, 2007; Rimé, Kanyangara, Yzrtbyt eta Páez, 2011). Hala ere, badirudi aldagai horiek neurrien eraginkortasunari loturik daudela, eta horrek giro soziala hobetzen eta adiskidetzeko prozesuak sakontzen lagunduko duela uste dugu (Cehajic, Brown eta Castaño, 2008).

Laburbilduz, bake-prozesuak garatzeko, derrigorrezkoa dirudi indarkeriaren garaiari buruzko eztabaida soziala zabaltzeak, nahiz eta horrek emozio negatiboak ekarriko dituela jakin. Segur aski, biktimek indarkeria jasan gabekoek baino behar handiagoa izango dute, eta beraiek izango dira inpaktu emozional sakonena pairatzen dutenak. Hala ere, neurriak eraginkorrak direnean, giro soziala hobetu eta adiskidetzeko bideak erraztu egingo direla uste dugu (Baumeister eta Exline, 2000; Bar-Tal, 2011; Cárdenas *et al.*, 2012; Sikkink eta Booth Walling, 2007).

Bibliografia

- Aguilar, P. (2008): *Políticas de la Memoria y Memorias de la Política. El caso español en perspectiva comparada*, Alianza, Madril.
- Bar-Tal, D. (2011): *Intergroup Conflicts and their Resolution: Social Psychological Perspective*, Psychology Press, Frontiers of Social Psychology Series, Hove eta New York.
- Baumeister, R. F. eta Exline, J. J. (2000): «Self-control, mortality, and human strength», *Journal of Social and Clinical Psychology*, **19**, 29-42.
- Beristain, C.; Páez, D.; Rimé, B. eta Kanyangara, P. (2010): «Psychosocial effects of participation in rituals of transitional justice: A collective-level analysis and review of the literature of the effects of TRCs and trials on human rights violations in Latin America», *Revista de Psicología Social*, **25**, **1**, 47-60.
- Biro, M.; Ajdukovic, D.; Corkalo, D.; Djipa, D.; Milin, P. eta Weinstein, H. M. (2004): «Attitudes towards justice and social reconciliation in Bosnia and Herzegovina and Croatia», in E. Stover eta H. M. Weinstein (ed.), *My Neighbor, My Enemy: Justice and Community after Mass Atrocity*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Bronéus, K. (2008): «Truth-Telling as Talking Cure? Insecurity and Retraumatization in the Rwandan Gacaca Courts», *Security Dialogue*, **39**, **1**, 55-76.
- Carbonell, M. (2003): *Una mirada a la verdad. Percepciones de la población de Huancavelica sobre la Comisión de la Verdad y la Reconciliación*, Consejería de Proyectos-PCS, Lima.
- Cárdenas, M.; Páez, D.; Bilbao, M. A.; Arnosó, M.; Asún, D. eta Fernández, G. (2012): Collective processes and subjective well-being: The psychosocial impact of the Chilean “Truth and Reconciliation” and “Political Imprisonment and Torture” commissions [argitaratu gabeko eskuizkribua].
- Cehajic, S.; Brown, R. eta Castano, E. (2008): «Forgive and forget? Antecedents and consequences of intergroup forgiveness in Bosnia and Herzegovina», *Political Psychology*, **29**, 351-368.

- Comisión de la Verdad y la Reconciliación (2003): *Informe Final*, CVR, Lima.
- Comisión Nacional de Verdad y Reconciliación (1991): *Informe de la Comisión Nacional de Verdad y Reconciliación*, Andros Impresores, Santiago.
- Comisión Nacional Sobre Prisión Política y Tortura (2004): *Informe de la Comisión Nacional Sobre Prisión Política y Tortura*, Santiago, Txile, <<http://www.bcn.cl/bibliodigital/dhisto/lfs/Informe.pdf>>.
- Comisión Verdad y Justicia (2008): *Tierras Mal Habidas. Informe Final*, Anive haguâ oiko, Asunción, Comisión Verdad y Justicia Paraguay – CVJ.
- CONADEP (1984): *Nunca Más: informe de la Comisión Nacional sobre la Desaparición de Personas*, Eudeba, Buenos Aires.
- De Grief, P. (2006): *The Handbook of Reparations. International Center for Transitional Justice*, University Press, Oxford.
- Elster, J. (2006): *Rendición de cuentas: La justicia transicional en perspectiva histórica*, Katz Editores, Buenos Aires.
- Etxeberria, A. eta Páez, D. (1989): *Emociones: Perspectivas Psicosociales*, Fundamentos, Madril.
- Gabisirege, S. eta Babalola, S. (2001): *Perceptions about the Gacaca Law in Rwanda*, Johns Hopkins, Baltimore.
- Gibson, J. L. (2004): *Overcoming Apartheid: Can Truth Reconcile a divided Nation?*, Russell Sage Foundation, New York.
- GOP (2003): *Estudio 180. Grupo Opinión Pública*, Universidad de Lima, Lima.
- Hamber, B. (2007): «Reparations as Symbol: Narratives of Resistance, Reticence, and Possibility in South Africa», in J. Miller eta R. Kumar (arg.), *Reparations: Interdisciplinary Inquiries*, Oxford University Press, New York.
- Hayner, P. (2001): *Unspeakable Truths: Confronting State Terror and Atrocity*, Routledge, New York.
- Kadima Kadiangandu, J.; Gauché, M.; Vinsonneau, G. eta Mullet, E. (2007): «Conceptualizations of forgiveness: Collectivist-Congolese versus Individualist-French viewpoints», *Journal of Cross-Cultural Psychology*, **38**, 432-437.
- Kaminer, D.; Stein, D.; Mbanga, I. eta Zungu-Dirwayi, N. (2001): «The Truth and Reconciliation Commission in South Africa: relation to psychiatric status and forgiveness among survivors of human rights violations», *British Journal of Psychiatry*, **178**, 373-377.
- Kanyangara, P. (2008): *Justice et Verite après un Genocide: Impact Psychosocial sur le Pardon et la Reconciliation*, Faculte de Psychologie, Lovaina, Belgika.
- Kanyangara, P.; Rimé, B.; Philippot, P. eta Yzerbit, V. (2007): «Collective Rituals, Emotional Climate and intergroup perception: Participation in Gacaca Tribunals and the Assimilation of the Rwandan Genocide», *Journal of Social Issues*, **63**, 273-288.
- Lira, E. (2010): «La reparación a las víctimas: una responsabilidad del Estado», *Mensaje*, **59**, 6-11.
- Mullet, E.; Pinto, M. C.; Nann, S.; Kadiangandu, J. K. eta Neto, F. (2011): «Hacia una política positiva: el caso del perdón en el contexto intergrupar en Asia y África», in D. Páez; C. M. Beristain; J. L. González; N. Basabe eta J. de Rivera (arg.), *Superando la violencia colectiva y construyendo cultura de paz*, Fundamentos, Madril, 377-399.
- Navarro-García, S.; Pérez-Sales, P.; Martínez-Aniorte, J. C.; Barczay, D.; Méndez-Castillo, A.; Woltke, C. E.; Lemus, L. A.; López-Sandoval, M.; Fernández-Pinto, I. eta Eiroa-Orosa, F. J. (2009): *Exhumaciones, verdad y justicia en Guatemala, estudio de opinión a nivel nacional*, Guatemala, Equipo de Estudios Comunitarios y Acción Psicosocial.

- Páez, D. (2010): «Official or political apologies and improvement of intergroup relations: A neo-Durkheimian approach to official apologies as rituals», *Revista de Psicología Social*, **25**, **1**, 101-115.
- Páez, D. eta Basabe, N. (1999): «Memoria colectiva de hechos políticos e identidad social», *Psicología Política*, **18**, 7-10.
- Páez, D.; Basabe, N. eta Gonzalez, J. L. (1997): «Social Processes and Collective memory», in J. Pennebaker; D. Páez eta B. Rimé (arg.), *Collective memory of Political Events*, Lawrence Erlbaum, Hillsdale, NJ.
- Pérez Sales, P. (2011): «Estudios sociológicos internacionales en población general sobre percepción de la violencia y reparación a víctimas: revisión de datos y análisis comparado», in D. Páez; C. M. Beristain; J. L. González; N. Basabe eta J. de Rivera (arg.), *Superando la violencia colectiva y construyendo cultura de paz*, Fundamentos, Madrid, 437-475.
- Pérez-Sales, P.; Vázquez, C. eta Arroso, M. (2009): «Aprendizaje postraumático individual y colectivo ante situaciones de terrorismo y violencia colectiva: Datos para un debate», in I. Márquez; A. Fernández-Liria eta P. Pérez-Sales (arg.), *Violencia y Salud Mental*, Asociación Española de Neuropsiquiatría, Madrid, 349-376.
- Project Counselling Service (2006): *Percepciones y opiniones de los colombianos sobre justicia, verdad, reparación y reconciliación. Informe de una encuesta de opinión pública*, <<http://www.peace-justice-conference.info/download/ColomSurvey.pdf>>.
- Rimé, B.; Kanyangara, P.; Yzerbyt, V. eta Paez, D. (2011): «The impact of Gacaca tribunals in Rwanda: Psychosocial effects of participation in a truth and reconciliation process after a genocidex», *European Journal of Social Psychology*, **41**, **6**, 695-706.
- Sikkink, K. eta Booth Walling, C. (2007): «The Impact of Human rights in Latin America», *Journal of Peace Research*, **44**, **4**, 427-445.
- Staub, E. (2005): «Constructive rather than harmful forgiveness, reconciliation and ways to promote them after genocide and mass killing», in E. L. Worthington (arg.), *Handbook of forgiveness*, Routledge, New York, 443-459.
- Sulmont, D. (2007): «Las distancias del recuerdo», *Memoria. Revista sobre Cultura, Democracia y Derechos Humanos*, **2**, 29-38.
- Van der Merwe, H.; Baxter, V. eta Chapman, A. (2009): *Assessing the Impact of Transitional Justice: Challenges for Empirical Research*, United States Institute for Peace, Washington.

